



---

## PRENTSA OHARRA - NOTA DE PRENSA

---

### LABek, berriro ere, errekurtsua kentzeko exijitzen dio Tubacex-i

Eusko Jaurlaritzako Industria Sailaren eta enpresa-batzordearen arteko gaurko bileraren eta kaleratutako pertsonak birkokatzekeo Tubacex-ek egindako proposamenaren aurrean, LAB sindikatuak honako hau adierazi nahi du:

- Berriro lanean hastea, kaleratutako plantilla birkokatuz, borrokaren eta langile eta eskualde oso baten irmotasunaren emaitza da.
- Mobilizazioekin eta langileen greba mugagabearekin jarraitzeko apustu argiak ahalbidetu du garaipen hau, eta horrek erakutsi du borroka dela bide bakarra lanpostuak eta lan-baldintza duinak defendatzeko.
- Hala ere, ezin dugu ahaztu enpresak, gaur egun, errekurtsoarekin aurrera jarraitzeko asmoari eusten diola Espainiako Auzitegi Gorenean, eta, beraz, kaleratzeekin aurrera jarraitu nahi duela. Hori dela eta, LABetik Tubacexi errekurtsua kentzeko eskatzen diogu, eta, era berean, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu, gaur egin duen bezala, enpresarekin bitartekaritza egin dezala errekurtsu hori behin betiko ken dadin.

Laudion, 2021eko uztailaren 20an